

## **Ur-biltegian “Invisibilidad Revelada” argazki erakusketa jarri da, eskusio-egoeran dauden pertsonak ikusarazteko**

Gaurtik otsailaren 17ra arte ikusi ahalko da Montehermoso kulturuneko ur-biltegian “Invisibilidad Revelada” argazki erakusketa. Duela 4 urte abiarazitako proiektu artistiko baten azken fasea da, zeinaren helburua baitzen baliabiderik ez duten eta gizarte-esklusio egoeran dauden pertsonak ikusaraztea, gehienetan oharkabean geratzen zaizkigu eta.

Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak sustatu du ekimena, eta arlo horretako zinegotzi Peio López de Munainek eta Carlos Lalastrak aurkeztu dute erakusketa; azken hori izan da erakusketaren komisarioa, eta berak sortu du proiektua, Andrea Abregar argazkilariarekin batera.

Azken urteetan hiru fasetan garatutako lanaren emaitza da XX erakusketa. “Ikusezintasun partekatua” proiektua izan zen abiapuntua, zeinean kultura eta sorkuntzaren arloko 13 pertsonak hartu baitzuten parte. Ondoren, “Ikusezintasun partekatua +” lana etorri zen, ahuldade maila handia duten eta gizarte eskusio egoeran dauden pertsonen desiretan zentratua. Orain, amaitzeko, zirkulua ixten da, batzuk besteekin lotuz: artisten taldea eta Harrera Sozialerako Udal Zentroko (CMAS) biztanleak.

Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak proiektuaren azken bi faseetan lagundu du, *“haren filosofia guztiz bat datorrelako gizarte eskusioaren alorrean jorratzen ari garen lan-ildoarekin. Eskusioari aurre egiteko, agerian jarri behar da, eta begietara begiratu. Ulertzen zaila gertatzen da gure gizartean hain ongizate maila handia lortu izana eta, hala ere, pertsona batzuk eskean ibiltzera edo kalean bizitzera behartuta egotea. Egoera horretan dagoen pertsona bakoitzak istorio bat ezkutatzen du; zaila da horri ez erreparatzea, eta ez dugu horretaz ahaztu nahi, horren azterketak eman baitiezaioke irtenbidea arazoari”*, esan du Peio López de Munainek.

Tokiko artistek CMAS udal aterpean bizi diren pertsonekin egin zituzten hiru lantegitan du oinarri “Invisibilidad Revelada” erakusketak. Artisten eta eskusio-egoeran dauden pertsonen errealitateen artean itxuraz amildegi bat dagoen arren, bazen elkarren arteko loturarik, bai kulturari bai bizitzari bizirautea baita kontua.

Gaur arratsaldean inauguratuko da erakusketa; Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Sailaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Vital fundazioaren laguntza ere izan du.

## **El Depósito de Aguas acoge la exposición fotográfica Invisibilidad Revelada que visibiliza a las personas en situación de exclusión**

El Depósito de Aguas del Centro Cultural Montehermoso acoge desde hoy y hasta el 17 de febrero la exposición fotográfica Invisibilidad Revelada, última fase de un proyecto artístico que surgió hace 4 años con el objetivo de dar visibilidad a las personas sin recursos y en situación de exclusión social que en la mayoría de las ocasiones pasan desapercibidas para la sociedad.

Peio López de Munain, concejal de Políticas Sociales y Salud Pública, departamento impulsor de la iniciativa, ha presentado la exposición en compañía de Carlos Lalastra, comisario de la muestra y autor de este proyecto al que ha dado forma junto con la fotógrafa Andrea Abrigar.

Invisibilidad Revelada es el final de un trabajo desarrollado en tres fases a lo largo de los últimos años. Empezó con el proyecto Invisibilidad Compartida, protagonizado por un colectivo de 13 personas del ámbito de la cultura y de la creación; continuó con Invisibilidad Compartida +, trabajo centrado en los anhelos de personas con alto grado de vulnerabilidad y en situación de exclusión social; y ahora, por último, se cierra el círculo vinculando a unos y a otros: al colectivo artístico con las personas residentes del Centro Municipal de Acogida Social (CAMAS).

El departamento de Políticas Sociales y Salud Pública ha colaborado en el desarrollo de las dos últimas fases de este proyecto *“porque su filosofía coincide plenamente con la línea de trabajo que mantenemos en el ámbito de la exclusión social. Para hacer frente a la exclusión hay que hacerla visible y mirarle a los ojos. Resulta difícil entender que, como sociedad, hayamos crecido tanto en niveles de bienestar y, sin embargo, sigamos viviendo a personas abocadas a pedir o vivir en la calle. Cada persona en esa situación esconde una historia de la que es difícil abstraerse y de la que no queremos aislarnos porque de su análisis puede salir la solución al problema”*, ha asegurado Peio López de Munain.

Invisibilidad Revelada nace de la realización de tres talleres dirigidos por artistas locales en el que participaron personas alojadas en el albergue municipal (CAMAS). Pese al abismo aparentemente existente entre ambas realidades, la que viven los artistas y en la que se mueven las personas en situación de exclusión, existía un nexo común: la cultura y la vida son escenarios de supervivencia.

La exposición, que se inaugura esta tarde, cuenta con la colaboración del Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco, de la Diputación Foral de Alava y de la Fundación Vital.